

ZER DA EUROPAKO INFORMAZIO NORMALIZATUA?

La Europako informazio normalizatua (EIN)
kontsumorako kreditua kontratatu aurretik bankuak
edo finantza-erakundeak eman behar dizun dokumentua da.

EINek informazio garrantzitsu guztia ematen du
kontratatu nahi duzun kontsumorako kredituari buruz
argi eta garbi.

Zertarako balio du?

EINek eskatzen ari zaren
kredituari buruzko informaziorik garrantzitsuena
ezagutzen laguntzen dizu.

Hainbat banku edo finantza-erakunderen
EINak izan ditzakezu
horrela gehien komeni zaizun
kreditua alderatu eta aukeratu ahal izango duzu.

Zer informazio jaso behar du EINak?

- Bankuaren edo finantza-erakundearen izena.
- Zenbat diru eskatzen ari zaren.
- Kredituari aplikatzen zaion interes-tasa (TIN).
- Zenbat ordainduko duzu urtean kredituagatik (UTB).
- Zenbat ordainduko duzu hilero.
- Zenbat denboraz itzuliko duzun kreditua.
- Zer gertatzen da ordainketak atzeratzen badituzu?
- Kontratuan atzera egiteko (uko egiteko) eta kontratua ezeztatzeko eskubidea.
- Nola eta noren aurrean aurkez dezakezu erreklamazio edo kexa bat sinatzen duzun kontratuari buruz.
- Kredituari buruzko beste edozein informazio garrantzitsu.

Noiz ematen dizute EIN?

EIN ematen dizute kontratua sinatu aurretik.

Normalean, EIN eskura ematen dizute (paperean) edo posta elektronikoz bidaltzen dizute.

Zer egin behar duzu EIN ematen dizutenean?

- Ondo irakurri eta ziurtatu dena ulertzen duzula.
Zerbait ulertzen ez baduzu,
galdetu artatzen zaituen pertsonari.
- Alderatu EIN honen baldintzak beste banku
edo finantza erakunde batzuen baldintzekin.
- Pentsatu zenbat diru ordain dezakezun hilero
zure ekonomiari eragin gabe.
Hala, ezustekoren bat baduzu,
kreditua ordaintzen jarraitu ahal izango duzu.
- Berrikusi ondo kredituaren baldintza guztiak.
- Ez sinatu ezer, harik eta argi izan arte
zer kreditu kontratatuko duzun
eta zer baldintza dituen.

Zenbat denboraz mantentzen du bankua edo finantza-erakundea EINek eskaintzen dizkizun baldintzak?

EINen baldintzak ez dira betiko.

Aldi baterako bakarrik balio dute.

Denbora horrek EINean adierazita egon behar du.

Derrigorrezkoa al da EIna ematea?

Bai. Europar Batasuneko banku eta finantza erakunde guztiak behartuta daude kontsumorako kreditu bati buruzko informazioa eskatzen duten bezeroei ematera.